



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 21a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da telelaguntza aurreratuko zerbitzu modernizatu bat diseinatu eta ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuak Gobernuak premiatzen da azken lan erreforma indargabetu dezan. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei. Hezkuntza Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, erakunde publikoak premiatzen dira lurralde kohesioari eta gizarteari begira bidera ditzaten tren-inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Juan Carlos Borboikoari Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Parlamentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile eta kolektiboek. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea. Mozioa erretiratzea (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kideak izendatzea. (9. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urriaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non interesdunak erretiroa bere borondatez aurreratu duen kasuetan nahiz langilearen borondate libreari egotz ezin dakioken arrazoi batengatik lanari utzitako kasuetan ez baitira aplikatuko lege horren 207. eta 208. artikuluetan ezarritako murrizketa-koefizienteak, baldin eta 40 urteko edo gehiagoko egiazko kotizazio-denbora kreditatzen bada.

Egiazko kotizazio-denbora hori kreditatzearen ondorioetarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsarien zati proportzionala, eta soilik zenbatuko da nahitaezko soldadutzaren edo ordezko gizarte zerbitzuaren denbora, urtebeteko gehiengo mugarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non pentsiodunak erretiroa hartzeko lege ezarritako adina betetzen duen unetik a-

tzina ez baitira murrizketa-koefizienteak aplikatuko, baldin eta erretiro aurreratua borondatez hartu bada eta langileari legearen 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera erretiroa hartzeko lege ezarritako adina betetzeko falta zaion hiruhileko bakoitzagatik edo hiruhileko-zatiki bakoitzagatik murrizketa-koefizienteak aplikatu bazaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non erretiro aurreratua hartu duten pertsonen –erretiroa borondatezkoa nahiz derrigorrezkoa izan– ez baitzaizkie aipatu murrizketa-koefizienteak aplikatuko eta beren kotizazio-oinarriaren eta kotizatutako urteen arabera kalkulatu baitzaie pentsioa, baldin eta besteren konturako langile gisa kotizatu badute araubide orokorrean, edo autonomoen araubidean, berrogei urte edo gehiago kotizatuta edukita eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrearen kasuko aldaketak onesten diren unean 65 urte edo gehiago badituzte.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du proposamen honetan aurreikusitakoari ez diezaion eragin derrigorrezko erretiroari buruz hitzarmen kolektibo bidez onetsitako klausuletan ezarritakoak, eta aplikatzekoa izan dadin, hitzez hitz, langileari egotz ezin dakioken arrazoiengatik erretiro aurreratuko kasuetan –207. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz– eta borondatezko erretiroko kasuetan”.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telelaguntza aurreratuko zerbitzu modernizatu bat diseinatu eta ezar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urriaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telelaguntza aurreratuko zerbitzu modernizatu bat diseinatu eta ezar dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, telelaguntza aurreratuko zerbitzu modernizatu bat diseinatu eta ezar dezan, honako hauek ahalbidetzeko:

– Laguntza eskatzea eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, erabiltzailea etxebizitzan egon ala ez.

– Bi aktibatze-sistema: bata ahotsaren bidezkoa, eta bestea botoiaren bidezkoa.

– Erorketak, tenperatura altuak eta ke toxikoak detektatzen dituen sistema bat.

– Familiakoak informatuta edukitzeko lokalizatzeko sistema bat eta larrialdi sistema bat.

– Telejarraipeneko sistema bat, irudiaren bidezkoa, kontsultetan eta jarraipenean laguntzeko balioko duena.

– Agendak kontrolatzeko eta telemonitorizazio-sistema bat”.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da azken lan erreforma indargabetu dezan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2020ko urriaren 9an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da azken lan erreforma indargabetu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du azken lan erreforma indargabetu dezan”.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2020ko urriaren 7an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturaren esparruko artisten eta sortzaileen eskubideak berma ditzan eta horien jarduna erraz dezan pandemiaren agertokian”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Ikuskizunen eta ekitaldien sektorea da COVID-19aren pandemiak gehien kaltetu dituenetakoa bat, jarduera bertan behera utzi behar izateagatik are alarma egoera deklaratu baino lehenago ere. Gauzak horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bereziki kaltetutako eta lehentasuneko sektoretzat jo dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du artistentzako, sustatzaileentzako eta sortzaileentzako instalazio eta espazio publikoen plan bat bultzatuz dezan toki entitateekin batera, espazio-murrizketa dela-eta jarduera bere ohiko espazioan egiterik ez dagoenean erabili ahal izan daitezen espazio horiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen du, ekitaldietan bultzatzaile edo parte-hartzaile denean, kultur ekitaldien sustatzaileei dei egin diezaien Nafarroako Foru Komunitateko sektoreko artista, sortzaile, teknikari eta langileen parte-hartzea kontuan har dezaten, gure erkidegoan enplegua mantenduko dela bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sektorerako zuzeneko laguntzak bultzatuz dezan, bai eta tresna fiskalak ere, kontuan hartuko dutenak kultur jardueraren aldizkakotasuna langileekiko eta enpresekiko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, kultur kontsumorako bonuen eskaintza bat taxutu dezan urgentziaz eta datozen sei hilabeteetan txartel turistiko kultural bat sor dezan, Foru Komunitateko kulturako, ondareko eta turismoko eskaintza sustatu eta hedatzeko elementu gisa”.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 7an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraio duin eta segurua berma diezaien nafar ikasle guztiei”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskola-garraio duin eta

segurua berma diezaien nafar ikasleei, halako moduan non albo batera utziko baitira irizpide ekonomizistak eta murrizketak eta beharrezkoak diren baliabideak jarriko baitira, eskola-jantokiaren zerbitzua erabiltzen ez duten nafar ikasleak beren helmugetara garraiatu ahal izateko eskola-eguna bukatzen denean, erabiltzen ez duten jantokiko txanda bukatu arte itxaroten egon behar izan gabe, une oro bermatuta haienganako arreta pertsonala eta segurtasun nahiz osasun baldintzak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekialdeko Pirinioetako ikasleak ikastetxetara joan ahal izatea ahalbidetu

dezan; zehazki, Abaurregainako ikasleentzako traktore-taxiaren jarraipena eta halako beste bat jartzea Oroz-Beteluko ikasleei, Garraldako eskolaraino arrazoizko iraupena izanen duen ibilbidea bermatzeko eta arriskuak gutxitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Orkoiengo eskola-garraioa berrantola dezan, kendutako linea berriro jarrita, ikastetxe bakoitzak garraioa behar bezala antolatzea bermatzeko eta ikastetxe ezberdineta-

ko ikasleen arteko alferreko kontaktuak ekiditeko, ikastetxeetako kontingentzia planekin bat.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Tafallako Sancho el Mayor BHIrako eskola-garraioa berrantola dezan, halako moduan non berreskuratu egingen baita 915 ibilbidea, Benegorriaraino desbideratzen zena herri horretako DBHko ikasleak garraiatzeko”.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2020ko urriaren 16an egin-dako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainontzeko gobernuari proposa diezaien bi ardatz berri sartzea 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa (ABEN) Euroeskualdeko gainerako gobernuari

proposa diezaien bi ardatz berri sartzea Euroeskualdearen 2021-XXXX plan estrategikoaren garapenean:

1. Jarduera-ildoei buruzko ardatz bat sartzea, emakumeek hiru eskualdeetan duten egoera berezitik abiatuta, Euroeskualderako lortu nahi den berdintasunezko eremu komunari forma emateko.

2. Euroeskualdeko landa-eremuetan despopulazioa geldiarazteko ekimen eta estrategiei buruzko ardatz bat sartzea, arazo komun handi baterako politika komunak ezartzeko”.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, erakunde publikoak premiatzen dira lurralde kohe-
sioari eta gizarteari begira bidera ditzaten tren-inbertsioetara bidera-
tuta dauden baliabideak.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 15ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, era-
kunde publikoak premiatzen dira lurralde kohe-
sioari eta gizarteari begira bidera ditzaten tren-
inbertsioetara bideratuta dauden baliabideak”.

Mozioa Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu
zuen eta 2020ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Juan Carlos
Borboikoari Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak,
2020ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi
du Nafarroako Gobernua Juan Carlos Borboikoari
Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion premia-
tzen zuen mozioa, zeina Izquierda-Ezkerra talde

parlamentario mistoak aurkeztu baitzuen eta
2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai
bat sor dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde Antolamendu-
ko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departam-
entuak, Parlamentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta Bizi-
garritasunari buruzko Dekretua onesteko prozesuak ukitutako eragile
eta kolektiboek.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak,
2020ko urriaren 15ean egindako bilkuran, honako
mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafa-
rroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor
dezan, zeinetan parte hartuko baitute Lurralde
Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta
Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Parla-
mentua osatzen duten talde politikoek, udalek eta
Bizigarritasunari buruzko Dekretua onesteko pro-

zesuak ukitutako eragile eta kolektiboek”. Mozioa
Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak
aurkeztu zuen eta 2020ko irailaren 29ko 102.
Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean
argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 7an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela honako mozio hau erretiratu izanaz: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz eta aldizkakotasunez dei ditzan hezkuntzako mahai sektoriala eta irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunaren jarraipen-batzordea".

Mozioa María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu zuen eta 2020ko irailaren 29ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kideak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urriaren 15ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide gisa pertsona hauek izendatzea:

- Esteban Morrás Andrés jauna.
- Miguel Arrarás Paños jauna.

- Juan Ramón Corpas Mauleón jauna.
- Idoia Sara Pérez andrea.
- Ubaldo González Delgado jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren aldaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urriaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren aldaketa onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren aldaketa

ZIOEN AZALPENA

Parlamentu demokratikoen erabakiak kasuan kasuko herriaren borondatearen agerpen dira, zeinak, bere ordezkarien bitartez, berarengan eragina duten gai politikoetan parte hartzen baitu, eta errealtatearekin konektatuta egon behar baitute une oro.

Nafarroako Parlamentuak dauzkan tresnetako bat dira, jarduera parlamentarioaren parterik handiena hartzen duten legegintzako ekimenez eta eztabaida politikoez gain, adierazpen politikoak, zeinak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan jasotzen baitira eta ahal den neurrian jasotzen baitute, agerpen baten bidez, Parlamentuak zer iritzi duen gaurkotasuneko egoerei, gertakariei edo gertakizunei buruz, herritarrei helaraztearren Parlamentuko taldeek zer uste duten, Nafarroako gizartea eraikitzen den balioetan oinarrituta, horrek ondorio juridikorik izanen ez badu ere.

Gizarteari Parlamentua osatzen dugun guztion jarrera helarazi behar diotenez, adierazpen horiek, alde batetik, ahobatezkoak izan behar dute edukiari dagokionez, eta, bestetik, horien edukiak salbuespenezkoa izan behar du: izan ere,

munta handia du Nafarroako Parlamentuak ordezkatzeko duen gizartean esku hartzeak. Alabaina, ikusita azken urteotan adierazpen politikoak inprobisazioz aurkezten direla eta ikusita nola onesten diren, adierazpenak babesten dituzten taldeen posizionamendu politiko bihurtu dira *de facto*.

Hortaz, adierazpenak aho batez onetsi behar dira, Nafarroako Parlamentuak transzendentzia politikoko auziei buruz helaraz ditzan pitzadurarik gabeko iritzia eta posizionamendua, nafar herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkarien bidez adierazitako iritzi orokorra islatuko dutenak. Hartara, egiaz izanen dira adierazpen instituzionalak.

Halaber, interpelazioak kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendaren barruan sartzeari buruzko egungo erregulazioaren arabera, lehentasuna ematen zaio interpelazioak aurkezteko hurrenkerrari.

Legegintzaldi bakoitzean diren talde parlamentarioen edo foru parlamentarioen elkarrean jarduera parlamentarioaren ekitatea lortzearren, jardun parlamentarioa irekitzeko egoki da lehentasun-hurrenkera hori kentzea.

Lehen artikulua. 44.6 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“6. Adierazpen instituzionalak aho batez onestea”.

Bigarren artikulua. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 185. artikulua 2. apartatua kentzen da.

Azken xedapena.

Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

